



## HAURREN HIRIA 2019

### **Haurren eskubideei buruzko ADIERAZPENA UDALBATZAN**

#### SARRERA

Tolosako Haurren Hiria proiektuan parte-hartzen dugu eta Tolosako haurren ordezkari gisa gatoz udalbatzar honetara.

Haurren Hirian gure iritzia emateko aukera dugu eta guztion artean zer nolako Tolosa nahi dugun adieraztekoa. Gaurkoan helburua gure eskubideak zein diren zuei gogoraraztea izango da.

Munduko neska-mutil guztiek eskubide berberak ditugu. Eskubide hauek hitzarmen batean jasota daude, 54 artikuluz ezberdinetan. Guk haien laburpen bat egin dugu, hona hemen:

#### ADIERAZPENA

Haur guztiek izan beharko genituzke eskubide berdinak, berdin dio norberaren jatorria zein den, sexua edo azal-kolorea, hitz egiten dugun hizkuntza, gure familiaren egoera ekonomikoa, gure sinesmena edo gure gurasoena, edo-eta desgaitasunen bat badugu ere. Gure behar berezietara egokitu behar duzue.

Agintariak edo pertsona helduek gurekin zerikusia duten erabakiak hartzen dituzuenean, gure garapenerako eta ongizaterako onena dena egin behar duzue.



### **Gure osasuna**

Elikadura egokia eta kutsatu gabeko ingurunea jasotzeko eskubidea dugu.

Haur guztiek dugu modu duin batean bizitzeko eskubidea. Gobernuan zaudetenok ahal den guztia egin behar duzue gure biziraupena eta garapena ziurtatzeko.

### **Gure Hezkuntza**

Eskubidea dugu derrigorrezko eta doako lehen hezkuntza jasotzeko, baita goi mailako hezkuntzan berdintasunean sartzeko eta aritzeko ere.

### **Aisialdia**

Jolasteko, atseden hartzeko eta kirol, arte edo-eta kultura zaletasunak izateko eskubidea dugu. Zuen ardura du guretzat eskaintza egoki bat egitea.

### **Lana**

Baimendutako adina bete arte, lanik ez egiteko eskubidea dugu.

### **Gure bizitza pribatua**

Eskubidea dugu gure bizitza pribatua errespetatua izan dadin, baita gure bizilekua ere.

### **Informazio egokia jasotzea**

Eskubidea dugu komunikabideetatik informazioa jasotzeko eta guretzat kaltegarria izan daitekeen informaziotik babestua izateko.

### **Gure iritzia**

Gure iritzia askatasun osoz emateko eskubidea dugu, eta iritzi hori kontuan hartu beharko duzue, Tolosako lehen mailako herritarrak garelako ere. Hori ahalbidetzeko Tolosan Haurren Hiria dugu. Mila esker!

### **Adierazpen askatasuna**

Askatasun osoz informazioa bilatu, jaso eta zabaltzeko eskubidea dugu, beti ere beste norbaiten eskubideei kalte egin gabe.

HAUXE DA HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENEN ARTIKULU BATZUEK DIOTENA LABURBILDUTA. ESKERRIK ASKO GU ENTZUTEAGATIK ETA TOLOSAN AHOTSA IZAN DEZAGUN AHALBIDETZEAGATIK.

MILA ESKER!!!!